

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

133/2024 Foru Agindua, abenduaren 16koa Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarraren prestazioa arautzen duen foru-dekretuaren proiektua egiteko prozedura hastea

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzea, foru-agindu honen bidez hasten da prozedura hori.

Hasteko ebazpenak, aipatutako Foru Dekretuaren 13. artikulua xedatzen duen bezala, labor-labor adieraziko ditu ekimena justifikatzen duten xedea, helburua eta arrazoiak, haren bideragarritasun juridiko eta materiala, antolamendu juridikoan izango duen eraginaren hurbilketa, xede berarekin aldatuko den araudia eta egokitzat jotzen diren izapideen eta txostenen zerrenda.

Foru Dekretu hori Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailaren 2024ko iraileko eta 2025eko martxoko ekitaldirako Arau Planean sartuta dago.

Otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 12. artikulua ezartzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gaineko eskumena duen saileko titularrak hasiko du.

6/2023 Foru Dekretuaren 10. artikulua c) eta g) letren arabera, dekretu hau salbuetsita dago aurretiazko kontsulta publikoaren izapidetik.

Hori guztia dela eta, nire eskumenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarraren prestazioa arautzen duen foru-dekretuaren proiektua egiteko prozedurari hasiera ematea.

a) Xedea eta helburua.

Foru-dekretu berri honekin lortu nahi den helburua Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarraren prestazioa arautzea da.

Erregulazio horrek honako xede hau du:

— Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarraren prestazioa arautzea, Arabako Foru Aldundiaren eskumenari dagokionez, bere erakunde autonomoaren bidez (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea), osasun- eta hezkuntza-sistemekin lankidetzan eta koordinatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuan jasotako xedapenekin bat etorritik.

b) Bideragarritasun juridiko eta materiala.

Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.c.1 artikulua ezartzen duenez, lurralde historikoei dagokie beren lurraldean gizarte-laguntzaren arloko erakunde komunak legeria betearaztea, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen zuzeneko ekin-tzari kalterik egin gabe.

2016ko martxoaren 7an argitaratu zen 13/2016 Dekretua, otsailaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoan Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Zerbitzuen eremuetatik arreta goiztiarraren arloan garatzen diren esku-hartze guztiak antolatze eta koordinatze oinarriko arauak ezartzen dituena.

Aurrekoa gorabehera, aurreko arau-esparruei eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeari jarraiki (arreta goiztiarreko esku-hartze sozialeko zerbitzu publikoa berariaz jasotzen du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoan sartutako zerbitzuen artean), foru-aldundiak duela 30 urte baino gehiagotik ari dira arreta goiztiarreko jarduketak egiten, eta orain berariazko arau-esparru batean finkatuta daude.

Otsailaren 9ko 13/2016 Foru Dekretuak, Diputatuen Kontseiluarenak, Gizarte Zerbitzuen Departamentuaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, haren eginkizunak eta eskumenak ezartzen ditu 1. artikuluan, eta honako hauek dagozkie: Hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, Prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Era berean, 3. artikulua Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitzen dio Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde (GOFE) autonomoa, eta haren helburuak honako hauek dira: Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuekin lotutako jarduerak antolatu, kudeatu, eman eta gauzatzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoko Arreta Goiztiarreko esku-hartze integralari buruzko otsailaren 2ko 13/2016 Dekretuarekin eta, zehazki, dekretu horren 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, foru-dekretu berri honen bidez, Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bidez, arreta goiztiarra antolatzeke oinarrizko arauak ezarri nahi dira, bai eta Arabako Lurralde Historikoko osasun-, hezkuntza- eta gizarte-zerbitzuen sistemen arlo horretako esku-hartzeak koordinatu ere.

c) Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.

Arabako Lurralde Historikoko arreta goiztiarraren prestazioa arautzen duen foru-dekretua egin da.

Arau-testu hori 2024ko irailerako – 2025eko martxorako onartutako Gizarte Politiketako Sailaren Arau Planean jasota dago.

Dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko da Arabako Lurralde Historikoko Arreta Goiztiarra arautzen duen Foru Araudi osoa, edo Dekretu honetan araututakoaren kontra doana, eta, zehazki, Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretuan araututakoaren kontra doana (36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, Arabako Gizarte Zerbitzuetako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak baldintza horietan eskuratzeko eskubidea eta prozedura arautzen dituena; 36/2014 Foru Dekretuak mendekotasun-egoera aitortzeko prozedura, desgaitasun-kalifikazioa, garapenaren nahasmenduak edo hori izateko arriskua arautzen ditu), honako atal hauek:

– 1.a) artikulua hirugarren paragrafoa eta 1.b) artikulua hirugarren paragrafoa.

– I. tituluko III. kapitulua.

– II. tituluko III. kapitulua.

– 59.c) artikulua.

– 2., 3.c) apartatuak eta 63. artikulua 4.a) apartatuaren hirugarren paragrafoa.

d) Aurrekontuan eta ekonomian izango duen eragina.

Erregulazio berriak ez du eraginik aurrekontuetan.

e) Proiektua izapidetzea.

Hura egiteko, proposatutako araudiaren gaia eta edukia direla-eta egokitzat jotzen diren izapidetak eta txostenak egin beharko dira, Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuarekin bat etorriz.

Lehenik eta behin, hasierako foru-agindu hau onetsiko da, eta, aldez aurreko onarpena eman ondoren, testua entzunaldi- eta jendaurreko informazioaren izapidearen mende jarriko da, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 28ko 6/2023 Dekretuaren 14. artikulua aplikatuz, eta ez da beharrezkoa izango aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea egitea, 6/2023 Foru Dekretuaren 10. artikulua c) eta g) letretan xedatutakoaren arabera.

Jarraian, nahitaezko txosten hauek bilduko dira:

1. Arau-eraginari buruzko txostena.
2. Generoaren eta berdintasunaren arabera eraginari buruzko txostenak.
3. Aholku Batzordearen txostena.
4. Ekonomia- eta araudi-kontrolari buruzko txostena.

Era berean, Idazkaritza Nagusiaren legezkotasun-kontrolaren mende jarriko da, ondoren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluari aurkezteko eta Foru Gobernu Kontseiluak foru-dekretua onartzeko eta, ondoren, ALHAOn argitaratzeko.

f) Arau-testua bi hizkuntzetan idazteko metodoa.

Bi hizkuntza-bertsio ofizialen artean (gaztelania eta euskara) egon behar duen baliokidetasun juridikoaren printzipioa gauzatzeko, Arabako Foru Aldundiko Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako Euskara Zerbitzuak egingo du arau-testuaren euskararako itzulpena.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoan arreta goiztiarra ematea arautzen duen foru-dekretuaren proiektua onartzea.

Hirugarrena. GOFeko Kudeaketako Zuzendaritzaren eta erakunde horretako Kontratazio eta Araubide Juridikoaren Arloa izendatzea hura izapidetzeko organo arduradun.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 16a

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

GORKA URTARAN AGIRRE

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria

MIREN SARATXAGA DE ISLA